



## DEKRETUA

**AGURTZANE SOLABERRIETA MESA** andereak, Usurbilgo Udaleko ALKATEAK, Toki-Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1.985ko Legeko 21.1. atalean xedatutakoaren arabera, honako hau

### IKUSIRIK

Etxebizitza Eskatzaileen Udal Erregistroa arautuko duen erregelamendua 2020ko ekainaren 22an argitaratu zen

Bestetik, alokairu sozialean eman beharreko udal etxebizitzaren errentariak onartu eta hautatzeko oinarriak 2020ko ekainaren 26an argitaratu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 120. zenbakian.

Txaramunto kalea 2 etxean, udalak bi etxebizitza ditu hutsik alokairu sozialean uzteko. Etxebizitzaren esleipen hurrenkera honako da:

Hurrenkera	Etxebizitza	Azalera	Logela kopurua
1	Txaramunto 2, 2.A Garajea: 7	58,64 m <sup>2</sup>	2
2	Txaramunto 2, 3.A Garajea: 10	40,11 m <sup>2</sup>	2

Etxebizitza hau esleitzeko Etxebizitza Eskatzaileen Udal Erregistroa erabiliko da. Une honetan 10 eskaera daude indarrean alokairu sozialeko esleipenetan parte hartzeko moduan..

Udal zerbitzuek, alokairu sozialean eman beharreko udal etxebizitzaren errentariak onartu eta hautatzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2020ko ekainaren 26an (120. zkia.) argitaratu ziren oinarriak kontutan izanik, onartutako eskaera bakoitzari bere lehentasunezko puntuazioa finkatu zaio.

Alokairu sozialeko etxebizitzak esleitzeko oinarrien arabera, hutsik dagoen etxebizitza, lehentasunezko puntuazio altuena duenen artean banatu behar da. Puntuazioa altuena duten eskabideak honako dira:



Usurbilgo Udala

Eskaera zkia	Eskaera data	Baremazio puntuak
X2023_4752	2023-09-29	19
X2024_0424	2024-01-24	17

Beraz, oinarrien arabera, Txaramunto kalea 2 etxean hutsik dauden etxebizitzak honela esleitu behar dira:

	Etxebizitza	Eskaera zenbakia
1	Txaramunto 2, 2.A Garajea: 7	X2023_4752
2	Txaramunto 2, 3.A Garajea: 10	X2024_0424

Guzti hau kontutan izanik,

## ERABAKI DUT

**LEHENDABIZI:** Txaramunto kalea 2an hutsik dauden etxebizitzak honako behin behingo esleipenak onartzea:

	Etxebizitza	Eskaera zenbakia
1	Txaramunto 2, 2.A Garajea: 7	X2023_4752
2	Txaramunto 2, 3.A Garajea: 10	X2024_0424

**BIGARRENA:** Erabakiaren berri esleipendunei ematea, hamar egun naturaleko epea eskainiz esleipena formalki onartzeko eta adierazten den epealdian kontratua formalizatzeko.

**HIRUGARRENA:** Erabaki hau udaleko web gunean argitaratzea. Hamar egun balioduneko epea ezartzen da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten, bai prozeduratik baztertu izana justifikatu gabe dagoela uste dutelako, edo esleitutako puntuazioa oinarrietan xedatutako baremoaren arabera ez dela irizten diotelako.

**LAUGARRENA:** Kontratua formalizatzen den unean, esleipendunei baja ematea Etxebizitza Eskatzaileen Udal Erregistroa.

ESKUIC805adc-8ac4-4995-97b1-17e83a29b241



Usurbilgo Udala

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

### **ERREKURTSOAK**

Honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua edo administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daitezke.

- a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekurtsua aurkez dezake, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.
  - Epea: Hilabete bat, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.
  - Non: Alkatetzara jo behar da.
- b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez dezake zuzen-zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 25 eta 46. artikuluetan agintzen denaren ildotik.
  - Epea: Bi hilabete, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
  - Non: Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.
- c) Berraztertze errekurtsuaren erantzunaren aurka jotzeko:
  - Epea: Bi hilabete, berraztertze errekurtsuaren erantzunaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.  
Aldiz, administrazioak berraztertze errekurtsua erantzun gabe utziko balu, interesdunak edozein momentutan aurkeztu ahal izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsua, berriazko araudiaren arabera presuntziosko ekintza gertatu den biharamunetik aurrera.
  - Non: Gipuzkoako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegira jo behar da.

Honela jasota gera dadin behar diren ondorioetarako, Dekretu hau izenpetzen dut.

**ALKATEAK**  
*Agurtzane Solaberrieta Mesa*



Nire aurrean  
**UDAL IDAZKARIAK**  
*Xabin Juaristi Arrieta*



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024DEKR0086-Dekretua/Dekretua (USURBILGO UDALA)